

## **COVID-19ak eragindako krisi sanitarioaren aurrean ekonomia eta gizartea berpizteko Plan bat garatzeari buruzko mozioa**

Proposamen honen bitartez, gure kezka adierazi nahi dugu gizarteko sektorerik zaugarrienen zaintzari dagokionez eta Covid-19ak eragindako krisi sanitarioaren ondorioz gure herriko merkataritzak eta ostalaritzak pairatzen duten egoeragatik.

Horregatik, Beterri-Buruntza garapen-agentzia eskualdean egiten ari den lanaz gain, ezinbestekoa iruditzen zaigu plan espezifiko bat egitea Lasarte-Oriako ekonomia eta gizartea berpizteko, eta, aldi berean, bizitza duin bati eusteko helburua erdigunean jartzen duen garapen-eredu baterantz aurrera egitea ahalbidetzeko, hain zuzen ere ikuspegi feminista eta ikuspegi ekologista esparru guztietan zeharka txertatuz.

Horrela, neurriak lehenbailehen abian jartzea oso garrantzitsua dela aintzat hartuta, funtsezkoa iruditzen zaigu plan hori gure udalerria osatzen duten alderdi politiko, sindikatu, eragile sozial eta enpresa-eragile guztien baterako lan baten emaitza izatea. Horregatik, plana egiteko lanean, horien guztien parte-hartzea bermatzea eskatzen dugu, bai eta planaren jarraipen, garapen eta proposamenetarako eztabaida-esparru bat abian jartzea ere.

Larrialdi-mahai edo esparru horrek baliagarria izan behar du diagnostiko bat egiteko, hain zuzen ere gehien kaltetutako sektore ekonomikoetako laguntzeko beharrezko neurriak lehenestea ahalbidetze aldera. Era berean, aukera eta proposamen guztiak ikuspegi bikoitz batetik aztertu beharko dira: batetik, une honetan bizi dugun egoeraren ondorioak murrizteko lehenbailehen egin behar direnak zehazteko, eta, bestetik, epe ertainari begira, ekonomia berpizteko eta biztanleria- eta ekonomia-sektore zaugarrienen zaintzarekin jarraitzeko neurriak zehazteko. Izan ere, bi dimentsio horiek oinarritzekoak dira gure komunitatearen kohesioa bermatzeko.

Era berean, eztabaida-esparru horrek gizarte-politiketan jarri beharko du bere arreta, egungo eta etorkizuneko egoerari aurre egiteko behar diren baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak eta sortzen diren beharrak aztertuta. Horretarako, laguntza komunitarioan lan egiten duten elkartasun-sareekin koordinazioa indartu beharko da, zaintzaren ikuspegiaren eta elkartasunaren funtsezko elementu gisa.

Bizi dugun ezohiko egoera konplexu honen neurria iristeko, elkarrekin lan egitera eta konponbideak modu kolektiboan bilatzera behartuta gaude, kalterik handienak pairatzen dituztenen eta egoerarik zaugarrienean daudenen zaintza gure jardunen erdigunean jarritz, horien ongizatea eta Lasarte-Oriako biztanle guztien ongizatea bermatzen saiatzeko.

Horregatik guztiagatik, Udal Osoko Bilkurari proposatzen diogu honako akordio hauek har ditzala:


1. Udal-gobernuari eskatzea Lasarte-Oriako gizartea eta ekonomia berpizteko Plan bat egitea, guztion parte-hartzearekin.

2. Horretarako, lan partekatua egiteko esparru izan daitekeen Larrialdi Mahai bat sortzea, egoeraren aldizkako jarraipena egiteko eta sortzen diren beharrei erantzuteko. Mahai horretan parte hartu beharko dute Udalean ordezkaritza duten alderdi politiko guztiek, sindikatuek eta udalerriko ehun sozial eta ekonomikoaren ordezkaritza zabal batek (gizarte-mugimenduek, kultur-elkarteek, auzo-elkarteek, elkartasun-sareek, merkatari- eta ostalari-taldeek, etab.), baita Covid-19aren ondoriozko krisiak eragin dituen zaintza- eta babes-beharrei erantzuten dieten Gizarte Zerbitzuetako udal-arloak eta arlo Sozioekonomikoak ere.

3. Udalak bere arloetan gauzatutako neurriak biltzen dituen dokumentu bat prestatzea, udaleko webgunean eta iragarki-taulan argitaratzea, eta eskura dituen baliabideen bitartez zabaltzea, informazio eguneratu guztia hiritarren eskura jartzeko eta errazteko, unean-unean ezartzen diren araudiekin batera.

Lasarte-Orian, 2020ko maiatzaren 11n

Bozeramailea Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos



David Ares Rodríguez